



Ebazpena, 2014ko ekainaren 4koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2013-2014 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banakako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4.) atala esleitzen da behin-behinean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2013ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez, 2013-2014 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banakako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen. (2013ko abenduaren 16ko EHAA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuordearen 2014ko apirilaren leku Ebazpenaren bidez ebatzi zen behin betikoz aipatutako deialdia, 6.2) atalari dagokiona.

Aipatutako deialdiaren 6.4) atalean ezarrita dagoenaren arabera, deialdiaren 6.2) atalari jarraituta, eskabideak aurkezteko epea baino beranduago matrikulatutako ikasleek badute laguntza eskatzeko eskubidea.

Aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa: Deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin-behinean.

Bigarrena: Interesdunak jakinean egon daitezten, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrenden iragarpena egitea eta diru-laguntza kopurua eta hala dagokionean ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.net" Web-eko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegaziook egutegiko 15 eguneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko esleipenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, behin-betiko bihurtuko da Ebazpen hau, eta "euskadi.net" Web-eko iragarki taula elektronikoan argitaratuko da, Deialdiaren 8.3) atalean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 4ean.


Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
OLATZ GARAMENDI LANDA.